# LAGUN BERRIAK

Testua eta irudiak: TOMI UNGERER

Itzulpena: AINHOA IRAZUSTABARRENA

Azal gogorrean egina. 20 x 28 cm. 44 or. 15 €.

1998ko HANS CHRISTIAN ANDERSEN SARIA

**Lagun berriak** (euskera)
ISBN 978-84-9172-069-0. Gaur egungo klasikoak.

**Nuevos amigos** (gaztelania)
ISBN 978-84-8464-416-3. Clásicos contemporáneos.

**Novos amigos** (galegoa)
ISBN 978-84-8464-415-6. Tras os montes.

**Fer amics** (katalana)
ISBN 978-84-16804-61-0. Clàssics contemporanis.

*A zer egun zirraragarria, Rafi Bamoko*
*eta bere gurasoak beste auzo batera aldatu ziren hura!*
*Aitak aspaldi irakatsia zion erremintak erabiltzen,*
*eta azkenean bere lantegia izateko aukera zuen...*

Beltzen familia bat beste auzo batera aldatu da. Bere urtebetetzean, Rafi txikiak ez du nor gonbidatu oraindik ez duelako lagunik, baina gurasoek opari egindako erremintei esker, erabaki du bere lagun propioak egitea eta irudiak eraikitzea gai birziklagarriak erabiliz. Egun batean Ki ezagutuko du, auzoan bizi den Asiako bikote baten alaba, eta honek bere burua eskainiko dio panpinak janzteko arropa josteko. Hala, auzokide izateaz gain, lagun min ere bilakatuko dira, komunean duten zaletasunak batuta; hain zuzen, sormenak.

Ez da faltako etorkinak izateagatik eta behar dituzten gaiak zabortegitik hartzeagatik mesfidantza erakutsiko dienik, ez eta beren irudimena garatzen jarraitzeko oztopoak jarriko dizkien agintaririk ere. Hala ere, Rafi eta Ki beren lanengatik ospetsu bilakatuko dira eta beste pertsona batzuk animatuko dituzte gauza bera egin dezaten.

Estilo koloretsuari eta izaera surrealistako xehetasunei jarraikiz, Tomi Ungererrek album ilustratuaren alorrera darama ahulekiko eta behartsuekiko konpromiso soziala: "Lagun berriak" lanean arrazakeria eta tolerantzia-eza arbuiatzen ditu, ironiaz mintzatzen da beste kultura batzuei loturiko topikoen inguruan eta ohitura aniztasuna txalotzen du. Halaber, ohikoak ez diren sorkuntza moduak aldezten ditu, hala nola hiriko artea eta birziklatzetik abiatuta eginiko zabor-artea.








■ **Gaia:** giza aniztasuna, kultura-aniztasuna.

■ **Norentzat:** 6 urtetik aurrera.

■ **Nabarmentzekoak:** gaur egungo haur eta gazte literaturako klasikoa; arrazakeriaren eta intolerantziaren kritika soziala; migrazioak, tolerantzia, integrazioa; adiskidetasuna; arte modernoa; egile berarenak dira honako hauek ere: "Hiru bidelapurrak", "Allumette", "Caracol, ¿dónde estás?", "¿Dónde está mi zapato?", "Críctor", "Adelaida", "Emilio" y "Rufus, el murciélago que adoraba los colores" (Kalandraka).

■ **Liburuaren aurrerapena:**
https://issuu.com/kalandraka.com/docs/lagun-berriak-eusk

### Tomi Ungerer

(Estrasburgo, 1931)

Bere lehen marrazkiak gerra-girokoak dira eta gerraren eta faxismoaren arbuioa erakusten dute. 1956an New Yorkera joan zen eta han haurrentzako liburuak idazten hasi zen, arrakasta handiz. The New Yorker, Esquire, Life Show edo Fortune bezalako hedabide garrantzitsuetan argitaratu zituen bere lanak. 60ko hamarkadan, bere ibilbidearen gailurrean, Ungererrek bere lanetan islatu zuen gizarte amerikarraren hipokrisiaren eta azalkeriaren aurkako erreakzioa. Kanadako etxalde batera aldatu zen eta 70ko hamarkadaren bukaeran Irlandara joan zen bere familiarekin. Berrogei urteko ibilbidean eginiko sorkuntza lana eskerga da, kalkulatzen da 30.000 eta 40.000 bitarte direla estilo desberdinetako lanak, eta 120tik gora liburuak. Beste aipamen batzuen artean, Ilustratzaileen Elkarteko Urrezko Domina eta Hans Christian Andersen Saria jaso ditu (1998an). Ilustratzaile izateaz gain, filantropia ere garatu du eta dena eman du kausa humanitarioen alde.

http://www.tomiungerer.com
https://www.musees.strasbourg.eu/musee-tomi-ungerer

www.kalandraka.com
comunicacion@kalandraka.com

www.Pamiela.com
soltxate@pamiela.com